



Llywodraeth Cymru  
Welsh Government

## EUSKO JAURLARITZAREN ETA GALESKO GOBERNUAREN

### ARTEAN

### ELKAR ULERTZEKO MEMORANDUMA

---

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAK, Eusko Jaurlaritzako Lehendakari Iñigo Urkullu Renteria jaunak ordezkaturata,

GALESKO GOBERNUAK, Galesko Gobernuaren Ministro Nagusi Carwyn Jones jaunak ordezkaturata,

AURRERANTZEAN, "Parte-hartzaileak"

Elkarren artean dituzten adiskidetasun- eta lankidetzaz- loturak indartu nahirik, elkarrenganako konfiantza eta konpartitzen dituzten askatasun, demokrazia, justizia eta elkartasunaren balioak oinarritzat hartuta,

#### **Adierazten dute:**

Euren eskumenen esparruan sartzen denez, aldebiko harremanak sendotu eta areagotuko dituztela, ahalik eta lankidetzarik zabalena ezartzeko Parte-hartzaileen artean; hori lortzeari begira, Parte-hartzaileek:

1. Oraingo kontaktuak sendotu eta areagotuko dituzte, jardunbide egokiak trukatu dituzte, elkarlanerako aukera berriak esploratu dituzte, proiektu bateratuak garatu eta bultzatu dituzte, besteak beste eremu hauetan:
  - Mugikortasuna eta garraioa, batez ere trenbide-azpiegitura eta –zerbitzuen alorrean.
  - Ingurumena eta klima-aldaketa
  - Teknologia, berrikuntza eta lehiakortasuna
  - Itsas energiak
  - Nekazaritzako elikagaien industria
  - Hezkuntza eta prestakuntza

- Estrategia eta politika fiskala, zerga-administrazioari buruzko politika, aurrekontu-kudeaketa eta gizarte-politikak.
- Osasuna eta gizarte-laguntzako zerbitzuak, balioetan oinarritutako arreta medikoa eta zahartze aktibo eta osasungarria
- Negozio-aukerak

2. Elkarren arteko lankidetzak indartuko dute eta gizarte kulturantzun eta tolerantzia bultzatuko dute. Zehazki, hizkuntza-politikarekin eta kultura-sektorearen sustapenarekin lotutako ekimenak sustatuko dituzte eta horren inguruko esperientziak trukatu dituzte.

Elkar Ulertzeko Memorandum hau ez dago nazioarteko zuzenbidearen mende.

Elkar Ulertzeko Memorandum honek ez du ez betebeharririk ez konpromiso juridikorik sortzen Parte-hartzaileen artean; halaber, ez du ezein Parte-hartzaile konprometitzen finantza-akordiorik onartzera, idatziz eta banan-banan onartzen diren –baten bat onartuz gero- finantza-akordioez gain. Edonola ere, Parte-hartzaileei gasturik sortzen bazaie, beharrezkoa izango da horiek urteko aurrekontu arruntaren baitan sartu ahal izatea, indarrean dagoen legedia errespetatuz.

Parte-hartzaileek adosten dute jarraipen-batzorde bat sortzea, Memorandum honetan ezarritako ekintzak aldi-aldi ebaluatu dituzten. Halaber, batzordeak aztertuko du ea lankidetzak aukerarik ote dagoen Memorandum honetan aipatu ez diren beste eremu batzuetan.

Elkar Ulertzeko Memorandum hau edozein unetan aldatu eta osatu daitezke, idatziz, bi Parte-hartzaileak ados egonez gero. Erabaki da Elkar Ulertzeko Memorandum hau 3 urte igaro ondoren berraztertuko dela, epe hori dokumentu hau sinatzen den egunean kontatzen hasita.

Lau ale sinatu dira, gaztelaniaz, euskaraz, ingelesez eta galeseraz, lau testuek benetakotasun berdina izanik, Cardiff hirian, 2018ko uztailaren 12an.

Eusko Jaurlaritzaren aldetik

Galesko Gobernuaren aldetik

IÑIGO URKULLU

CARWYN JONES